



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## Arriaga Antzokiak beste bi kontzertu sartu ditu bere programazioan: Las Migas eta Javier Gurruchaga

- Emakumez osatutako laukoteak flamenko alai eta ausarta egiten du, eta bere bosgarren albuma aurkeztuko du: *Libres*. Albumean bere zigilua mantentzen dute eta amerikar kutsuko eragin berriei tartea ematen diete.
- Javier Gurruchagak eta Orquesta Mondragónek *Historias extraordinarias* izeneko ikuskizuna dakarte Bilbora, zeinetan Poeren izen bereko obraren umorezko esketxak eta taldearen kantu mitikoak uztartzen baitira.
- Bi kontzertuok 2023ko ikuskizunetara gehitzen zaizkie: Las Migas, urtarrilaren 22an, eta Javier Gurruchaga y la Orquesta Mondragón, martxoaren 26an.

**Bilbo, 2022ko irailaren 29a.** – Arriaga Antzokiak denboraldiko programaziora gehitu diren, eta 2023an egingo diren bi kontzerturen berri eman nahi du. Lehenengoa, ordena kronologikoan, **Las Migas** da, urtarrilaren 22an izango dena. Taldeak hemezortzi urtetik gora daramatza nazioarteko agertokiak konkistatzen, eta flamenko femeninoago, ausartago eta alaiagoaren erreferentzia bihurtu da; honako hauek osatzen dute taldea: Marta Roblesek, zuzendaritzan, konposizioan eta gitarran; Carolina “La Chispa”k, ahotsean; Alicia Grillok, beste gitarran; eta Roser Loscos-ek biolinean. Bilboko ikusleek aukera izango dute Las Migasen bosgarren albuma den *Libres*-en aurkezpena ikusteko; 10 abestiz osatutako album honek «itsasoaren usaina du, lurrarena, airearena eta suarena, maitasun askeena, itxaropenarena eta emakume indartsuena». Bere lanik argitsuena, alaiena eta ausartena da, eta keinuak egiten dizkie estilo berriei, hala nola countryari, pop amerikarrari eta musika urbanoari, betiere ezaugarri dituzten flamenkoa eta musika espainola oinarritzat hartuta, hori baita bere zigilu paregabea.

Iragarri berri den beste kontzertuak **Javier Gurruchaga** nekazina ekarriko digu, **Orquesta Mondragón**ekin batera. Taldeak Bilbon eskainiko du bere azken ikuskizuna, *Historias extraordinarias*, zeina Edgar Allan Poek idatzi zuen izenburu bereko obran oinarritzen baita. Izan ere, errezitalean taldearen abesti adierazgarrienak eta Poeren lan mitiko hartan oinarritutako umorezko esketxak uztartzen dira. Hortaz, antzoki eta auditoriumetarako sortutako *Historias extraordinarias* honek ibilbide dibertigarri eta beldurgarria eskaini nahi du, nostalgikoa eta bizizalea, teatrala eta musikala, Orquesta Mondragónek berrogei urte baino gehiagotan aurkeztu dizkigun ipuin eta kontakizun liluragarri horien benetako orrialdeetan barrena.

Bi kontzertuetarako sarrerak bihar, irailaren 30ean jarriko dira salgai [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian. Prezioak 13 eurotik 37 eurora bitartekoak dira Las Migasen kontzerturako,

eta 15 eurotik 40 eurora bitartekoak Javier Gurruchaga y la Orquesta Mondragón ikusteko.

Informazio gehiago:  
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA  
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307  
[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)  
[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)